

LEZO / Udal liburutegiaren Interneterako sarrera «arrakastatsua» izan da

Erabiltzaileei eta langileei esker lortu du arrakasta ekimenak

L. MUGURUZA

«Euskadiko Liburutegi Nazionaleko Sistemaren on line sarean barneratzea arrakastatsua izan da», adierazi du Udalak. Izan ere, 2004an herriko Udal Liburutegiak lehen aipatutako sarean sartzeko ahalegina hasi zuen eta, Udalaren arabera, langile nahiz erabiltzaileei esker arrakastatsua izan da ekimena.

2004an Udal liburutegiak zituen liburu guztien katalogoa sartzearabaki zuen sarean. Erabiltzaileen zerrenda zaharra ez sartzearabaki zuen, izan ere, aurretik zituen akatsak konpondu nahi baitzituen.

Erabiltzaileen zerrenda berria egin eta 835 bazkide berri egin zituen liburutegiak sistema berriarekin. Honekin batera, 1.037 liburu, 94 CD eta 158 bideo berri ere jarri zituzten katalogoan. Honez gain, Udalak aipatu du 20 titulu kendu zituztela iazko katalogotik.

Laguntzak

Lezoko Udalak 10.350 euro eman zizkion liburutegiari liburu berriak eros zitzaizkion. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak ere 3531,33 euro eman zizkion. Aipatutako instituzioez gain, bestelako erakundeek eta partikularrek ere euren ekarpena egin zuten ekimenean: Espainiako Kultura Ministerioak, Gipuzkoako Diputazioak, Kutxak, Hondarribiako Udalak eta herriko biztanleek, hain zuzen.

Iazko urte guztian zehar 8.301 liburu mailegu kudeatu dituzte liburutegiak. Era berean, 7.886 pertsona pasa ziren bertatik liburuak kontsultatzeko, baita bertan ikasteko asmotan ere.

Hein berean, zortzi egunkariaren harpidetza ordaindu zuen Udalak, liburutegian erabiltzaileen eskura izan zitezela.

Jarduera bereziak

Liburutegiaren ohiko eskaintzaz gain, beste hainbat ekimen ere egin zituzten iaz: hala nola 5 eta 6 urteko eskola haurren bisitak, ipuin kontaketa eta arrakastarik izan ez zuen literatur tailerra.

Jarduera hauetarako 5.600 euroko aurrekontua izan zuen Udalak. Diru kopuru horretan sartu ziren Eusko Jaurlaritzak jarritako 1.703 euro.

Azpimarratzekoa haur literaturako lehiaketek izandako erantzun ona: Jon Garbizu poesia lehiaketak 98 parte-hartzaile izan zituzten; Lope Isasti ipuin lehiaketak, berriz, 151 parte-hartzaile.